

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

2019ko aurrekontu orokorraren hasierako onarpena

Udalbatzak, 2019ko martxoaren 5eko bilkuran, 2019ko Aurrekontu Orokorrari hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, aurrekontuari buruzko espedientea hamabost egun baliodunetan izango da jendaurrean iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Udalbatzari.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hori behin betiko onartutzat joko da.

Denek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Aramaion, 2019ko martxoaren 6an

Alkatea

LIERNI ALTUNA UGARTE